



Usurbilgo Udala

2025/10/08

2025EKO URRIAREN 8AN EGINDAKO EZOHICO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia
Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Ivan Iriondo Axpe
Josune Urkola Larrarte
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Leire Ucin Soraluze.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez da bertaratu: Jose Maria Lizaso Azconobieta.

Usurbilen, 2025eko urriaren 8an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ezohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- 2026KO ORDENANTZA FISKALAK HASIERAZ ONARTZEA (2025EKOF0002).

Batzarkideek Antolaketa batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute gehiengoz onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

2025/10/08

“Gobernu taldearen ordezkari gisa, Agurtzane Solaberrieta alkateak 2026 urterako prestatu duten Ordenantza Fiskalen proposamena azaldu zuen urriaren 1ean egindako ezohiko Antolaketa Batzordean. Batzordean azaldu zituen, 2026rako urterako proposatzen dituzten zerga, tasa eta prezio publikoen aldaketa nagusiak honakoak dira:

1. Batetik, irizpide orokor gisa proposatzen du zerga, tasa eta prezio publikoak KPIaren arabera igotzea, hau da %3 igotzea.
2. Irizpide orokorra aurrekoa izan arren, zenbait salbuespen egingo dira, honakoak:
 - Kirol zerbitzuetan, Buruntzaldeko udalen artean hala adostu zelako, kirol zerbitzuetako prezioak eta abonua %5,5 goko dira.
 - Uraren arazketa kontzeptu berri bat sartu da, Añarberen aldetik azken urteetan egindako inbertsioak direla eta, kontzeptu honekiko gastuak handitu baitira eta orain arte Udalak ez ditu kobratu. Ondorioz, ur-kontsumoaren arabera %60ko arazketa zerbitzu kontzeptu berria sartu da. Urtero igotzeko asmoa dago estolderiaren mailara (ur-kontsumoaren %75) iritsi arte datozen urteetan.
 - Hondakinen kasuan %15eko igoera emango da, 7/2022 Hondakinen legearen baitan jasotako zerbitzuaren defizit zero printzipioaren bidean.
 - Udajolaseko tasari dagokionez kosteak asko igo dira, eta proposamena da orain arte bezala zerbitzuaren estaldura maila %50eko izatea. Alabaina, hori horrela izatera iristeko igoera progresiboa egitea aurreikusten da datozen urteetan eta, honela, 2026rako prezioa 135 euroan gelditzea.
 - Haurreskolari dagokionez ez da igoerarik emango.
 - Gainbalioko zergan igoera %5eko izango da 20 urtetik gorako koefizientea azken bi urtetan %10 jeitsi dela eta, gerta litekeen dirusarrera galera apaltze aldera.

2026rako proposatzen diren ordenantza fiskalen xehetasunak emanik, emendakinak bozkatuta eta batzordekideen artean aztertu ondoren, Antolaketa batzordeak gehiengoz (Aldeko 4 bozka -EH Bildu eta EAJ- eta abstentzio bat -PSE-) plenoari luzatutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

Lehena: 2026ko Ordenantza fiskalak hasieraz onartzea eta 30 egunez jendaurrean jartzea.”

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Abstentzioa: Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

2025/10/08

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:40etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.